

Basaburuko GAZTAIN FERIAren bigarren edizioa ospatuko da datorren asteburuan, azaroak 2, Mendialdeko Azoka Ibiltariarekin bat eginez

Gaztainen kultura, tradizioa eta bertako gaztainadien balio naturala ezagutzeko topaketa izanen da. Hori guztia, urriaren 31tik azaroaren 2ra arte Jauntsaratsen.

Gaztainadiak eraikitzen dute gure paisaia, eta, gaur egun, gehienak abandonatuta egon arren, gure arbasoek landatu, txertatu, inausi, bakandu eta zaindu dituzte, bere aurrekoek transmititutako jakinduriari esker, tamalez, egun galtzear dagoen ezagutza.

Basaburua, Ultzama eta Larraungo bailarek gaztainondo ugari dituzte oraindik. Aparteko ingurumen-balioa dute; izan ere, paisaia osatzeaz eta aberasteaz gain, biodibertsitatean oso habitat aberatsak dira, eta oinarritzko funtzioa betetzen dute lurzoruen kontserbazioan, erregulazio klimatikoan, uraren zikloan eta abarretan.

Baina, gainera, gaztainondoa ohitura, elikagai, berotasuna eta babestokia da gure kulturaren. Gaztainondoa erabilera ugariarekin lotuta egon da beti: gizakien eta abereen elikadura, eraikinetako edo altzarietako egurrerako, saskigintza, landare melifero gisa, etab. Gaztainak biltzea eta ondoren dastatzea, gainera, gaztainen berotasunean elkartzeko eta sozializatzeko motibo izan dira. "*Urriaren azkenean gaztaina etxean*"...hala dio atsotitzak.

Hau guztia Basaburuko herritarrek eta Basaburuko Udalak antolatu dute, gaian interesa duten hainbat entitateen laguntzarekin, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Cederna Garalur, INTIA, Foresna-Zurgaia eta Seo Birdlife besteak beste. Helburua da bariedadeak, jakinduria eta gaztainadiak berreskuratzea eta, are gehiago, gure tradizioan hainbeste pisu izan duten erraldoi hauen inguruko kultura eta ekonomia berriro sortzea.

Proposamena bikoitza da. Alderik dibulgatzaileena ostirala eta larunbatean, izanen da, gaian adituak diren pertsonen eskutik. Eta jai giroa eta dinamizazioa igandean, hilak 2, izanen da, hainbat erakusketa, dastatze, artisau-postu, erakustaldi eta abarrekin.



Basaburuko
Udalak



Gobierno
de Navarra  **Nafarroako**
Gobernua



Jardunaldi dibulгатzaileak ostirala eta larunbata, urriak 31 eta azaroak 1

Feria honen helburu nagusietako bat gaztainondoak kontserbatzen eta balioan jartzen lagunduko duten esperientziak ezagutzea eta ikastea da. Horretarako, azokaren bezperan, ostiralean eta larunbatean, hitzaldi batzuk antolatu dira gaian adituak diren pertsonen eskutik.

Ostiral goizean hitzaldi teknikoak izanen da, barietateak eta klima aldaketak gaztainadietan duen eragina izanen du gai nagusia. Arratsaldean berriz, gaztainadien berreskurapen esperientzien tarteak izanen da. Larunbat arratsaldean ordea, gai nagusia gaztainen bilketa eta kontserbaziorako teknikak izanen da.

Jardunaldi hauen antolaketan BASABURUKO UDALA, NAFAR GOBERNUA, INTIA, FORESNA-ZURGAIA, eta SEO BIRDLIFE bezalako elkarteek parte hartze zuzena izan dute. ARAKILGO UDALA, SUSTRAIAK GURASO ELKARTEA eta NAFARROAKO RURAL KUTXAK lagundu dute.

Hitzaldien lotura hemen: <https://plazaola.eus/jornadas-tematicas-del-castano/>

Naturan Margolaritza tailerra, azaroak 1

Larunbata goizeko 10:30etan Gaztainondo batean doako margolaritza tailerra izanen da Beatriz Cárcamo artistaren eskutik.

Erakusketak, tailerrak eta dastaketak igandean, azaroak 3

Igandean Basaburuko II. Gaztain Feria ospatuko da. Jarduera desberdinak izanen dira, beti ere gaztaina protagonista nagusia izanen delarik. Jarduera hauek Jauntsaratseko hariztian 10:30etatik 14:30etara izanen dira.

Dastaketak:

- Gaztaina errea eta salmenta
- Food Truck Reyno Gourmet — gaztainaz egindako pintxoak

Salmenta postuak:

- Gaztainazko produktuak
- Gaztainondo-landareak eta txertoen erakusketa
- Gaztainondoazko saskiak



Basaburuko
Udala



Gobierno
de Navarra

 **Nafarroako**
Gobernua



Erakusketak eta tailerrak:

- Gaztainondoari buruzko kontakizun eta marrazkiak (Larraitzarreko Eskola)
- Euskal Herriko gaztaina-kultura erakusketa
- Familia-tailerra: LAND-ART — arte iragankorra naturan
- Gaztainondo-saskigintzako erakusketa eta tailerra
- Gaztainondoa motozerrarekin tailatzea

Bideo-proiektzioak:

- Gaztainondo-otarre (Mendi Biziak)
- Gaztainondoaren inguruko ondare ez-materiala (Sustraiak Apyma)

Artisauen postuak (azoka ibiltaria) eta gaztainari lotutako postuak

Basaburuko udalak, ekitaldi hau aprobetxatuz, Mendialdeko Azoka Ibiltariaren aurtengo azken merkatua antolatu du. Merkatu honetan ohikoak diren postuei gaztaina-ren kulturarekin lotura duten beste batzuk gehituko zaizkie:

- Gaztain landareen salmenta
- Gaztainondo-zurez egindako saskien salmenta
- Gaztainez egindako produktuen salmenta

Guztira, gaztaineekin lotutako 4 postu, Mendialdeko Azoka Ibiltariko postuei gehituko zaizkienak. Nekazaritzako elikagaien 12 postu izanen dira: gazta, taloa, hestebeteak, pateak, zukuak, arrautzak, artisau-garagardoa, etab., eta eskualdeko artisauen 13 artisautza postu gehiago ere izanen dira: zura, zeramika, metala, ehungintza, etab. Modu jasangarri eta arduratsuan egindako tokiko produkturik onenen eskaintza izanen dugu Jauntsaratsen, zonaldeko lehengaien erabilera bereziki baloratzen duena. Azoka honen bidez, gainera, landa-eremuko ingurumenarekin, aisiarekin, ekonomiarekin eta kulturarekin arduraz jokatzeko duen kontsumoa sustatu nahi da. Honen harira, Nafar Gobernuak salmenta zirkuitu laburren sustapenerako martxan jarri duen ekimena aurkeztuko da hitzaldietan.

Azokaren jende-aurreko ordutegia 10:30etatik 14:30etara izanen da, ekitaldi guztiak Jauntsaratseko hariztian izanen direlarik. Azoka honekin, Mendialdeko Azoka Ibiltariak 2025ko edizioari amaiera emango dio.



Basaburuko
Udala



Gobierno
de Navarra  **Nafarroako**
Gobernua



Gero eta jasangarriagoa, irisgarriagoa eta inklusiboagoa den ekitaldi baten alde

Beste ekintzetan bezala, "ZABORRA O" mezua zabaldu nahi dugu. Datorren igandean, hilak 2, jendeari eskatu nahi diogu zakarrontziak erabil ditzatela eta azokako eremuan hondakinik ez dezatela utzi. Gero eta ekitaldi jasangarriagoak bultzatzea da helburua. Halaber, irisgarritasunari eta inklusibitateari dagokienez, honako hauek na- barmendu behar dira:

- Mugikortasun Urriko Pertsonentzako Aparkalekua (MUP). Azokako eremutik gertu.
- Komun egokituak: Apeztegiberrin, Jauntsarasko hariztitik 500 metrora.
- Programa eta komunikazioa (prentsa oharra eta Sareak) irisgarriak.
- "Zaborra O": zaborrontziak jarriko dira (koloreen arabera bereizirik), betiere espazio garbi eta osasungarria izateko helburuarekin ("Zaborra O"), eta hondakinen gaikako bilketa eta birziklapena sustatuko da.
- Paper berziklatuan inprimatutako seinaleztapen-kartelak.
- Atsedeen-guneak gertu, lasai egoteko.

Lotura honetan egitaraua: <https://plazaola.eus/basaburuako-gaztain-feria-jauntsaras/>

Esteka honetan, ekitaldian izango diren zerbitzuen, leku interesgarrien, programaren eta abarren zerrenda zehazten da mapa batean: <https://labur.eus/eyhonpln>

ANTOLATZAILEAK: Basaburuko Udala, Plazaola Partzuergo Turistikoa eta gaiarekiko sentsibilitatea duten hainbat lagun.

LAGUNTZAILEAK: Habelarte, Reyno gourmet, Nafarroako Rural Kutxa, Seo birdlife ("Montes vivos" proiektaren barrenean) Sustraiak guraso elkarte, CEDERNA-GARALUR eta Nafar Gobernu (Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak edo sustapen-jarduerak garatzeko planean).

Jauntsaratsen 2025 urriaren 18a



Basaburuko
Udala



Gobierno
de Navarra  **Nafarroako**
Gobernua

